

Turismoaren ekarpena 2014an Euskal AEko ekonomiara, %5,9

Turismo hartzailea aurreneko aldiz turismo-gastu osoaren %50en gaineratik

2014an Euskal AEn egindako turismo-gastua, 3.922 milioi, BPGren %5,9, Eustaten datuen arabera; 2013an baino hamarren bat gehiago.

2010etik bost hamarrenez gehitu da turismoaren ekarpena Euskal AEko ekonomiara; goia, 2014an. Turismo hartzaileagatik da gehikuntza ia bere osotasunean; alegia, Euskal AEn estatuko pertsonak edo atzerritarrek egindako gastuagatik. Handituz joan da gastuaren osotasunean, 2014an %50,5era iritsiz; aurreneko aldiz handiagoa izan da gastuaren beste osagaiak baino. 2010etik 2014ra, turismo hartzailearen ekarpena ehuneko 3,2 puntuz gehitu da.

Euskal AEn bizi diren turista eta txangolariek, enpresek eta euskal administrazio publikoek eginiko gastu turistikoa – “Gastu turistikoaren beste osagaiak” - %49,5 da, 2010etik aurrera pisua galduz urtero.

1. Taula. Euskal AEko BPGra turismoak egindako ekarpena. Balio absolutua eta portzentajea. Uneko prezioak. 2010-2014(a)

	2010	2011	2012	2013	2014(a)
Turismoko gastua, guztira	3.619	3.706	3.800	3.803	3.922
Turismo hartzailea	1.713	1.782	1.876	1.898	1.982
Turismoaren beste osagai batzuk	1.906	1.924	1.924	1.905	1.940
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	47,3	48,1	49,4	49,9	50,5
Turismoaren beste osagai batzuk	52,7	51,9	50,6	50,1	49,5
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa					
Turismoko gastua, guztira	5,4	5,4	5,7	5,8	5,9
Turismo hartzailea	2,6	2,6	2,8	2,9	3,0
Turismoaren beste osagai batzuk	2,8	2,8	2,9	2,9	2,9

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea


Oinarria 2010

(a) Aurrerapena

Gastu turistikoan azpimarragarria da txangolariek egin (bidaiariak ez du gauda etxetik kanpo egiten), bai Euskal AEko egoiliarrena, bai Estatuko gainerakotik eta atzerritik etorritakoek egin; atzerritarrena bereziki garrantzitsua da Gipuzkoan, Frantzia bertan izanik.

Euskal AEn saldo turistikoa negatiboa da historikoki; hobera egin du (326 milioitan) 2010-2014an

Euskal AEn azpimarragarria da kanporako turismoaren garrantzia (euskal hiritarren erkidegotik kanporako bidaia eta txangoak), hartzailearen (erkidegoan bizi ez direnen bidaia eta txangoak Euskadin zehar) aldean; horrek 2.172 milioiko defizita ekarri du 2014an, BPGren %3,2. 2010-2014 bitartean saldoa gutxitu egin da turismo hartzailearen goranzko dinamismoagatik.



Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

Hiru lurraldeetan hazi da turismoaren garrantzi ekonomikoa 2014an

Bizkaian gastu osoaren %43,9 egin zen 2014an; Gipuzkoan %41,7; Araban %14,4. 2013.aren aldean, Gipuzkoan %4,0ko gehikuntza; Bizkaian %2,6; Araban %2,2.

Gipuzkoan izan dugu -batez ere Donostian eta kostaldean- turismo-tradizio sendoena, baina urterik urte Bizkaiak gero eta protagonismo handiagoa hartu du, gastuan igartzen delarik.

Gipuzkoan du oraindik ere turismoak pisurik handiena ekonomian, beste bi lurraldeen protagonismoa goranzkoa izan arren. 2014an, gastu turistikoa BPGren %7,4 izan zen Gipuzkoan (historiako gorena); Bizkaian %5,1 (baita ere); Araban %5,2.

2. taula: Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua eta ehunekoa. Uneko prezioak (a). 2005-2014

	2010	2011	2012	2013	2014(a)
Turismoko gastua					
Euskal AE	3.619	3.706	3.800	3.803	3.922
Araba/Álava	508	543	572	551	563
Bizkaia	1.573	1.623	1.662	1.681	1.725
Gipuzkoa	1.538	1.540	1.566	1.571	1.634
Ehunekoa					
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Araba/Álava	14,0	14,7	15,1	14,5	14,4
Bizkaia	43,5	43,8	43,7	44,2	43,9
Gipuzkoa	42,5	41,5	41,2	41,3	41,7
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa					
Euskal AE	5,4	5,4	5,7	5,8	5,9
Araba/Álava	4,8	4,9	5,3	5,1	5,2
Bizkaia	4,5	4,7	4,9	5,0	5,1
Gipuzkoa	6,9	6,9	7,1	7,2	7,4

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

2010 Oinarria

(a) Aurrerapena

Informazio gehiago.

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

Turismoaren kontu satelitea/prentsa ohar gehiago

Turismoaren kontu satelitea/datu bankua